



---

Ana Oregi gidari zutela, lurraldeaz eta jasangarritasunaz gogoeta egin zuten Maite Iturre Cederna-Garalurreko presidentea, Mari Jose Aranguren Orkestrako zuzendariak, eta Fagor taldeko Aritz Otxandianok. Euskal lurraldearen erronka nagusia iraunkortasuna izanik, beharra ikusi zuten ongizatea eta lehiakortasun bateratzen dituen zirkulu birtuosoaren aldeko aapustu egiteko. Lurralde desorekaren eta urruntze kongnitiboaren arriskuen aurrean, azpimarratu zituzten eskualdeek eskaini ditzaketan osagarritasunak, egon badagoen kapital sozialaren abantaila, eta lankidetzan urratzeko dagoen bidea.

**Giltza-hitzak:** Iraunkortasuna. Ongizatea. Lurralde-desoreka. Urruntze kognitiboa. Entzute prozesua. Kapital soziala. Eskualdea. Lankidetzaz.

Non dagoen euskal lurraldea eta norantz joan nahi duen lurralde horrek. Hilabeteetan zehar jende ugari lan egin du euskal lurraldearentzako norabide egokiaz gogoetatzen eta Eusko Ikaskuntzaren mendeurreneko kongresuaren Bilboko saioan norabide horretan pausoak egiten jarraitzeko oinarriak izan zituzten hizpide ‘Lurralde estrategiak eta jasangarritasuna’ solasaldiko hizlariek.

Lurralde orekaz, lankidetzaz, landa eremuaz, kapital sozialaz aritu ziren, Ana Oregiren gidaritzapean, Maite Iturre Cederna-Garalurreko presidentea, Mari Jose Aranguren Euskal Lehiakortasunerako Orkestra Institutuko zuzendaria eta Aritz Otxandiano Fagor taldeko gizarte berrikuntzako zuzendaria.

Konplexua da lurralde batentzako etorkizunerako ildoak zehaztea, eta Bilboko solasaldirako, Liburu berdeko diagnostikotik abiatuz hainbat ildo eta ideia agertu ziren.

Liburu berdeko diagnostikoak, dio territorio txiki honetako komunitate txiki hau arduratu egiten dela bere lurraldeaz eta bere lurraldearen etorkizunaz. Alegia, herritarrek zein eragile organizatuak gaur egun lurraldean gertatzen ari denari oso adi daudela, arduratuta, kezkatuta, bidean asmatzen ez baldin badugu gerta daitekeenarekin. Eraldaketa sakoneko garaiotan lehentasunak ezartzerakoan eta erabakiak hartzerakoan kale

eginez gero –eta mundua nola dabilen ikusita kale egiteko arriskua ez da txikia– horrek herriarentzat izan ditzakeen ondorio txarrei buruz kontziente dira herritarrak.

## 1. Iraunkortasuna

Ildo horretan, iraunkortasunarena da lurraldearen desafio nagusia eta gai horri lotuta joan ziren solasaldiko erronka eta ideietako asko.

Erronka hori aintzat hartzeak hainbat galdera dakar, esaterako, zeintzuk izan behar diren lurraldearentzako iraunkortasun orokor horren bila egin beharreko apustu ekonomikoak? Mari Jose Aranguren Euskal Lehiakortasunerako Orkestra institutuko zuzendariak azaldu zuen lehiakortasunak pertsonen ongizatea hobetzen duela eta ongizate horrek aldi berean lehiakorrago egiten gaituela, beraz, garapen ekonomikoa eta gizarte garapena elkar indartzen dituen zirkulu birtuosoari eusten berebiziko ahalegina egin beharko dugula.

Arangurenen ustez, enpresek euren ingurunearen garapena bilatzeko misioa barneratu beharko lukete, adibidez, inguruko hornitzaileak aintzat hartuz.

Eta jarduera ekonomikoari dagokionean Orkestrako zuzendariak dibertsifikazio estrategiak bultzatzearen alde egin zuen. Arangurenen ustez landa eremuan, bailaretan edo toki eremuetan, guztietan daude berrikuntzak bultzatzeko aukerak. Besteak beste, gizarte erronka desberdinak aukera bezala hartuz, esaterako, adineko pertsonen bakardadea.

Iraunkortasun paradigma indartu dezaketen jarrerak, ordea, ezinbestekoak direlakoan, nekazaritza iraunkorra eta elikadura osasuntsua erdiesteko kontsumitzailearen kontzientzia garrantzitsuak direla adierazi zuen Maite Iturrek. Solasaldiko entzuleek bertako esne sektorearen eta gaztagintzaren inguruan egon den kontzientzia falta egoeraren erakusle dela adierazi zuten.

Elikaduraren inguruko kontzientzia horretan eta nekazariaren lanari balioa emateko xedean, Iturrek landa guneak ahalduntzea funtsezkoa dela esan zuen, landa eremuak hiriguneen apendizetaz jotzeari utziz eta eta jarrera paternalistak baztertuz. Xede horretan, lehen sektore guztia zaku berean sartzeari uzteak ere lagunduko luke Iturreren ustez.

## 2. Desoreka

Lurralde desoreka maiz aipatu zen solasaldian zehar, euskal lurraldeek erronka mardula dutelakoan. Aipatutako sintomen artean dago industria politika berriek garapen orekatua ez eragin izana. Era berean, metropolizazio joeraren ondorioz, landa eremuari atzean, bazterrera gelditzeko arriskua areagotu egin zaiola nabarmendu zuten.

Hainbat eremutan gabeziak gero eta gehiago dira zerbitzu eta baliabideetan, eta jokabide horrekin eten egin behar dela esan zuen Maite Iturrek. Eten, haren ustez, denak berdin tratatzen dituzten lurralde politikek desberdintasunak areagotu besterik egiten ez dituztelakoan, biztanleria galtzen ari diren tokien kalterako. Iturreren aburuz, hobeto pentsatu beharko litzateke nola aintzat hartu, esate baterako, hiruen artean bi mila lagun soilik dituzten Aezkoa, Erronkari eta Zaraitzu eskualdeak.

Lurraldea desorekatzen duten joeren erdian tokiko ekonomien egoeraz eta etorkizunaz arduratu beharra ere azpimarratu zuen Iturrek, batetik azpiegiturei dagokionez. Konektibitate fisikoa bezala digitalak tokiko ekonomian duen garrantzia nabarmendu nahi izan zituen.

Landa eremuaren aukera ekonomiko horiei ahalik eta etekin gehien atera behar dela ere esan zuen entzule batek, adibidez, Europako Batasunak bioekonomia zirkular iraunkorrerako egingo duen apustua eta jarriko duen dirua baliatuz. Mari Jose Aranguren ek interesgarritzat jo zuen aukera hori.

Eta konexioekin jarraituz, urrutze kognitiboak oharra egin zuen Maite Iturrek. Duela 20 urte Euskal Herrira iritsi zenean, nola ikusi zituen elkarrengandik urrun lurraldeak, EAE-Nafarroa-Iparraldea bananduta, ez muga administratiboekin soilik, baita kognitiboki ere.

## 3. Eskualdeak

Lurraldeen arteko osagarritasunean hobetzea izan zen solasaldiak ekarritako eginkizun berrietako bat. Lurraldeen arteko osagarritasuna lantzea hauen arteko saretzea indartzeko modua izan daitekeelakoan, gaur egun nukleo gutxi batzuetan kontzentratzeko daramagun joera irauliz.

Osagarritasun behar horretaz aritu zen Aritz Otxandiano Fagor Taldeko gizarte berrikuntzarako arduraduna Otxandianok

lurralde eskalei buruz hitz egin zuen, eta lurralde eskala desberdinek izan beharreko osagarritasunaz. Zer-non egin ondo definitu behar dela esan zuen eta osagarritasunekin jokatzu eraginkortasuna areagotzea bilatu behar dela, esaterako landa eremua eta hirigunea lotzeko.

Gai horren inguruan kontsentsu oso indartsua agertu zen tokiko dimentsioan eskualde eskalak oinarrizko unitate gisa izan dezakeen eraginkortasunaz. Horrekin lotuta, hainbat proposamen plazaratu zituzten entzuleek, besteak beste, eskualde mailako kohesioan eragiteko funtsa sortzea edo Batzar Nagusien eginkizunak egokitzea funtzio territorial argia izan dezaten.

Otxandianoren ustez tokiko garapenak aurrera egingo badu ikuspegi berri bat behar da, eta hor, lurraldea entzuteko eta interpretatzeko modu berriak sortzea proposatu zuea, diagnostiko tresna klasikoak nahikoa ez direlakoan.

Otxandianoren aburuz, “entzute prozesu sakonak behar dira, komunitate zehatz batean dauden helburu, errelato, kezka eta balioekin konektatu nahi badugu. Konexio hori gakoa da estrategia eta ekimen desberdinek funtzionatu dezaten, arrakasta izan dezaten”.

Publikotik ere antzeko gogoeta bat egin zen gai horri buruz, eskualde eskalan komunitate kontzientziak eta nazio kontzientziak proaktibotasuna sendotu dezaketela nabarmenduz, baita herrigintzak berak ere.

## 4. Kapital soziala

Proaktibotasuna eta euskal lurraldeek duten kapital soziala ere hizpide izan zituzten hizlariak. Kapital soziala Euskal Herriak alferrik xahutu ezin duen indar moduan azaldu zen transformazio sozial eta ekonomikorako prest, ekiteko prest egon behar duen motorra delakoan.

Ekintzailetasunean, autoeraketan, lankidetzan zaildutako kapital sozial sendoa egon badagoelako gure komunitatean, gure lurraldearen luze zabalean barreiatuta, eta hori berretsi nahi izan zuten Iturrek, Arangurennek eta Otxandianok. Hala, azaldu zuten nola lehenago ere, Euskal Herriak erakutsi izan duen bere jarrera proaktiboarekin eta inizatiba propioarekin estutasunak gainditzeko gai den herria dela.

Denon ahotan egon zen ordea, erantzun propioak bilatzearen premia. Aritz Otxandianok horren erakusleak aipatu zituen,

besteak beste euskararen biziberritzea eta Mondragonen esperientzia nabarmenduz. Haren ustez, komunitatearen protagonismoa eta inplikazioa oinarri dituen erantzun propioa izateak ekarri du Euskal Herria XXI. mendera. Eta munduan garapen ekonomikoaren eta sozialaren binomioa hausteko arriskua areagotzen ari denean, erantzun propioa izatea inoiz baino premiazkoagoa izan daiteke.

Horrelako ekimenak ezerezetik jaiotzen ez direlakoan, indar, gogo eta ekimen horietako asko alferrik ez galtzea lortu beharko litzatekeela azpimarratu zuen Otxandianok. Aitzitik, jarrera proaktiboak sortzea landu egin behar litzakeela. Horretan, hain zuzen, orain arte erakutsitako balioek eta komunitate kontzientziak sekulako garrantzia izango dutela esan zuten bai Otxandiano zein Arangurennek.

## 5. Lankidetzak

Euskal lurraldeak asko du hobetzeko lankidetzan, maiz azpimarratu dute hori hizlariak. Gaur egun Euskal Herrian Lurralde iraunkortasunarekin bezala, lankidetzaren eta kontsentsu beharraren inguruan adostasuna esanguratsua da.

Lurralde arteko lankidetzak horretan Maite Iturrek, esaterako, lurraldeen arteko urruntzea eragiten duten azpiegitura diseinuak gaitzetsi zituen, eta gehienetan, lurralde arteko lankidetzan ardatz atlantikoaz hitz egitera mugatzen dela adierazi zuen, hots, Euskal Herriaren kohesiorako gakoa den ardatz pirenaiokoarekin ahaztu egin ohi dugula. Muga handia izan arren, aukerak ere handiak direla nabarmendu zuen. Iturreren ustez, nahiz eta Iparraldeko erakundetzea gauzak erraztera etorri da, baina maila ertaineko erakundeen arteko lankidetzaren aukerak handiak izan daitezkeela nabarmendu zuen. Ideia horren eredutzat jarri zuen Arnegi eta Luzaideren artean koordinatu duten eskola komuna.

Elkarrizketaren hariak beste ikuspegi bat ere azalerazi zuen, hau da, lurralde estrategien definiziorako egokiago irizten zitzaieen elkarrekin lankidetzan definitutako estrategiak goitik behera ezarrita datozenak baino. Hori gauzatzeko, ordea, lankidetzan parte hartzeko mekanismoak erraztuko litzuketen baliabideen premia azpimarratu zuen, bai administrazioen artean, bai bestelako erakundeen artean ere. Horretarako, esku hartze eredu berriak landu beharra ere ikusi zen, besteak beste elkar aitortzatik abiatutako lankidetzak espazioak. Esan daiteke

ondorioen artean lankidetzaren estua eta dimentsio sozialaren integrazioa beharrezkotzat jo zirela erronka berriei erantzun bidezko eta eraginkorrak emateko.

Bilboko solasaldia lurralde orekatu, erresiliente eta konektatu bat imajinatze ariketa izan zen, eta aipatu ditugun osagaiak ikusi zitzaizkion. Hor jarri ziren erantzun propio bat aurkitzeko gakoak, garapen ekonomikoa eta garapen soziala eskutik eramango dituenak. Edonola ere, solaskide guztiak jabetuta zeuden bide horrek jarrera proaktibo eta konprometitua behar dituela lurraldeko eragile guztien aldetik. Hara hor oinarri batzuk lurralde iraunkortasunaren euskal eredurako.